

Burtsa eta Merkatuak

Nazioko Merkatuan denbora errealean informatu eta eragiketak egiteko aukera

Nazioko eta nazioarteko burtsa-merkatuetan eragiketak egiteko zerbitzua.

Akzioekin, ETFekin, warrantekin egin ditzakezu eragiketak.

Horietaz gain, besteak beste, salerosketa chartistak agintzeko, agindu baldintzatuak egiteko, kapital handitzeetara joateko, eskubideak harpidetzeko eta dibidendua aukeratzeko aukera ere ematen du.

Egun barruko operatibarekin, egiten diren egun berean likidatzen dira eragiketa guztiak (eurotan). Horrela, eginiko salmenten zenbatekoa erabili ahal izango duzu.

Laboral Kutxak Burtsa Zerbitzua honako hauen bidez eskaintzen dizu:

- Online banka: nazioko nahiz nazioarteko merkatuetan egiten ditu eragiketak, eta burtsa-informazio zabala eta askotariko finantza-eragiketak egiteko aukera eskaintzen ditu. Sartu Online bankan
- Banka mugikorra: etengabeko merkatuan eta nazioartekoan baloreen salerosketa-eragiketak agindu ditzakezu, eta burtsa-informazio zabala eskaintzen du. Sartu banka mugikorrean edo beheara jaitsi aplikazioa.
- Telebanka: nazioan nahiz nazioartean egiten ditu eragiketak, eta akzioekin, ETFekin, warrantekin eragiketak egiteko aukera eskaintzen du. Telebanka
- Sukurtsal-sarea: burtsan eragiketak egin edo edozein zalantza argi dezakezu Laboral Kutxako zure sukurtsalean.
- Mugikorreko alerten zerbitzua: egon zaitez aldi oro informatuta salerosketa-eragiketen inguruan, zure mugikorrean jasotako sms-en bitartez. Informazio gehiago

BALORE KONTUA

Burtsan eragiketak egiten hasteko beharrezkoa da balore-kontu bat izatea. Zure akzioak gordetzeko erabiltzen den kontua da balore-kontua. Kontu korrante edo libreta bati loturik dago, eta bertan erregistratzen dira eragiketen zordunketak eta ordainketak.

Kontu horren mantentzea erabat doan da. Komisioak erosteagatik, saltzeagatik edo baloreak mantentzeagatik kobratzen dira, ez kontua izateagatik.

Balore-kontua honako hauen bidez kontrata dezakezu: Online Banka, Telebanka edo sukurtsal-sarea.

FINANTZA ALBISTEAK

Atal horretan etengabeko merkatuari buruzko informazioa aurkituko duzu denbora errealean.

Inbertsioen (erreal edo fikziozkoen) eboluzioa kontrolatzeko eta horien errentagarritasuna aztertzeke aukera ematen du.

Burtsako informazio-zerbitzu osoa eskaintzen du: kotizazioak, albisteak, iritziak, gomendioak.

Posta elektronikoko abisuetan alta emateko aukera eskaintzen du, aldian-aldian informazioa jasotzeko newsletterra harpidetzeko aukera, adituen analisiak

behera jaisteko eta entzuteko aukera eta zorro birtual bat sortzeko aukera.

